

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAHIA
Hezkuntza Politikarako Saiburordetza



DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Política Lingüística



HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2023





Donostia, 2023ko martxo

© Testuen egileak: Imanol Mercero, Mireia Delgado,
Sara Bikandi eta Mari Garcia.

© Diseinua eta maketazioa: Maddi Orcajo

© Galtzagorri elkarte
Zemoria kalea 25, behe
20013 Donostia
galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus
www.ibbygaltzagorri.eus



Inprimaketa: Itxaropena, S.A.
Araba kalea, 45
20500 Zarautz
L.G.: D 254-2023

HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUEN GIDA

Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegiak 2023

BITARTEKARIAK MEDIUMAK ZARETE

Galtzagorri elkarteak, 1990. urtean eratu zenetik, euskarazko haur eta gazte literatura zabaltzea, sortzaileak hauspotzea eta bitartekariak trebatzea izan ditu helburu. Urteen joanean, elkartearen oinarriek sendo eutsi diote eta aldi berean teoria eta jardun berriei irekita gaude, bilatu, hartu, ikasi eta lau haizeetara zabaldu. Irakurzaletasuna jorratu dugu eta heziketa literarioa lantzen ari gara. Alumei buruzko trebakuntzak sustatzen ditugu alfabetizazioak bisuala ere izan behar duela sinetsita gaudelako. Eta hori guztia zuen eskura jartzea da Galtzagorriren xede nagusienetako bat, zuek mediumak zarete, haurraren eta liburuaren artean dagoen ahotsa, eta elkartetik ahal beste erreminta jarri nahi ditugu zuen eskura. Lanabes horietako bat da hau, Irakurzaletasuna sustatzeko irakasleentzako lantegien kariatara urtero-urtero prestatzen dugun gida non material berriak eta kalitatezkoak aurkituko dituzuen.

Galtzagorri, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura sailarekin lankidetzan, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan lantegiak egiteko seigarren edizioa abiarazi du. Tokian tokiko udal bibliotekariak ere gonbidatzen ditugu lantegiak jasoko dituzten ikastetxeetara, bi esparru horien arteko elkarlana sustatze aldera. Gida hau eskuartean baduzu, Galtzagorriko kideak zure eskolan izan direlako da.

Haur eta gazteentzako liburuaren gidak aipaturiko egitasmoaren jarraibideak biltzen ditu. Euskarazko haur eta gazte literaturan argitaratu diren 40 bat izenburu topatuko dituzu, eta liburu bakoitzarekin bitartekariarentzako esku-hartze proposamen bana jaso ere. Hartara, aukeraketa erraztu eta ikasleekin lanketa egiteko tresnak jarri nahi ditugu zuen eskura. Aurten gainera, gida berrikuntzekin dator: formatua aldatu eta, orain arte ez bezala, ale bana jasoko baitu lantegietan parte hartzen duen zuotako bakoitzak.

Galtzagorri urteak daramatzagu, Irakurketa Mintegiaren bidez, haur

eta gazteentzako euskarazko argitalpenak irakurri, baloratu eta hautatze lanetan eta, aldi berean, Ezinbestekoak zerrenda osatzeko eskatzen diogu urtero aditu bati. Balorazio eta aukeraketa horietan oinarritutako liburu zerrenda jasotzen du gida honek. Kalitate literarioa aitortu zaien liburuak topatuko dituzu: argitaratu berriak gehienak, gaurkotasuna galtzen ez duten klasiko berrargitaratuak eta genero literario ezberdinetakoak. Fikzio molde ezberdinak eskaini nahi izaten ditugu bai heziketa literarioa lantzeko, baita irakurketara erakartzeko ere. Hala, adinka sailkatutako obra sorta honetan, albumak –hitzezkoak eta hitzik gabekoak–, komikiak, eleberriak, ipuin liburuak, poesia liburuak eta fikzio digitala aurkituko dituzu. Euskarara ekarritako obrei ere lekutxo bat egin nahi izan diegu, baita nazioarte mailako aplikazio digitalei ere, euskarazko gutxi dagoelako. Bitartekariak ezinbestekoak zarete haur eta gazte literaturan, eta Galtzagorriren xedea jakintza oro har eta obrak, generoak, estrategiak zein baliabideak zuengana eramatea da. Bitartekari hitzari muzin egin gabe, Anna Juan Cantavella adituak mediumak zaretela esan zigun behin, eta guri horrenbeste gustatu zitzaigun poltsikoan gorde genuela.

Galtzagorri elkarte
Donostia, 2023ko martxoa

2 urtetik aurrera:

| | |
|-------------------------------------|----|
| POLTSIKORAKO POEMAK | 8 |
| BEHIN OMEN ZEN DAMA ZAHAR BAT | 9 |
| XIRIMIRI | 10 |
| HONELA ALA BESTELA | 11 |

4 urtetik aurrera:

| | |
|------------------------------|----|
| XAMUK ESAN DU BARKATU! | 12 |
| MUNSTROA AL ZARA? | 13 |
| BASO ILUN ETA SAKONEAN | 14 |
| MAMUTA IKUSI DUT! | 15 |
| KIWI HARTZA | 16 |
| LARANJONDOA | 17 |

6 urtetik aurrera:

| | |
|--|----|
| BADATOZ PIRATAK! | 18 |
| KIXKUR PINTTOREN ARREBA | 19 |
| HEMENDIK EZ PASA! | 20 |
| LE TRAIN | 21 |
| ZARATA DO MAIORREAN BIOLIN ETA PIANORAKO | 22 |

8 urtetik aurrera:

| | |
|-----------------------------------|----|
| ERLEAK ETA LUR-ZIZAREAK | 23 |
| JAKELINEN EGUNEROKOA | 24 |
| LO (EZ) EGITEKO ISTORIO BAT | 25 |
| MARRAKATXARRA | 26 |
| MARLENE ETA TAXIZAPATA | 27 |

10 urtetik aurrera:

| | |
|----------------------------------|----|
| LA BELLE | 28 |
| MUNDUA ULERTZEKO IPUINAK 2 | 29 |
| KUKUAREN KANTUA | 30 |
| MAITAGARRIAK | 31 |
| HANIELLEREN TXALUPA | 32 |

12 urtetik aurrera:

| | |
|--|----|
| ATZAMARRA | 33 |
| MEMET | 34 |
| MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA | 35 |
| KLAK | 36 |
| 15 ARRAZOI ISILIK EGOTEKO; 15 ARRAZOI OIHU EGITEKO | 37 |
| AU DÉBUT | 38 |
| LIMA | 39 |
| EKOLINE | 40 |

14 urtetik aurrera:

| | |
|--|----|
| ZERRIA | 41 |
| ERRADIKALAK | 42 |
| NI EZ NAIZ MIKEL LABOA | 43 |
| TAROKA: ERRIMA JOKO BERTSOTERIKOA | 44 |
| JOÃO | 45 |
| OSABA PETROS ETA GOLDBACHEN AIERUA | 46 |
| VIRIDITAS: LANDAREEN MUNDU ZORAGARRIA IKUSARAZI ZIGUTEN EMAKUMEAK | 47 |

Podcastak:

| | |
|-----------------|----|
| DODOA | 48 |
| GONAGORRI | 49 |

Fikzio digitala / Aplikazioak:

| | |
|-------------------------------------|----|
| EMMA BY JUTTA BAUER | 50 |
| PETTING ZOO | 51 |
| THE EMPTY KINGDOM | 52 |
| IRABAZI ARTE: IRAGANEKO MAMUA | 53 |
| BOUM! | 54 |



POLTSIKORAKO POEMAK

Testuak: Hainbat egile
Ilustrazioak: Amaia Egidazu, Saroa Bikandi
Itzulpena: Amaia Egidazu (“Cajitas frutales”, Antonio Rubio)
Hegoak, 2022
ISBN: 978-84-09-45989-6
Poema jolasa

Manipulazio bereziko bost testu dira, sorta bat osatzen. Bakoitza askea da eta bi zintarekin bilduta eskaintzen dira. Zintetako batean idatzita dago izenburua, testu bakoitzak bere izen propioa duelako: Lasterketa, Zuloak, Fruta kutxatxoak, Zoro-Soro, Goizaldean. Guztietatik “Goizaldean” da formalki akordeoi egitura duena, beste laurak egitura konplexuagoa baitute. “Lasterketa”, “Zuloak” eta “Zoro-Soro” antzekoak dira egitura narratiboan, umore motan eta ideia garatzeko erabilitako baliabideetan. Hiruetan tabuetara hurbiltzen dute irakurlea (zulo iluna ipurtzuloa, bazkaltzeko zizareak, Erramun herrena), hiruretan zerrendek egituratzen dute testua, hiruretan gozotik aldentzen den umorea bilatzen da. “Fruta-kutxatxoak” ez da erabat desberdina baina egitura ez da kate bat, baizik eta hiru bikoteran ausazko segida, eta umorea zuria da. Bere aldetik, “Goizaldean” ikasitako bertso bat omen da, umorezkoa, egunsentian baserritarra etxera inguratzean bertakoek egiten dituzten hotsen zerrenda moduko bat. Sorta osoa batzen duten elementuak, baita ere, anitzak dira, guztiak manipulazio ariketak baitira, irudien estetika oso bateratua dutenak eta testuen kanta, kontu, jolas izaerak batetik besterako jauzia eskatzen dutenak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Testu hauek modu askotara aurkeztu daitezke. Behin eta berriz ozen esatera jolastu ezker, adibidez, barruraino sartuko zaizkigu bai erritmoa baita hitzak ere. Errezitatzean, tolesgarria den liburua maneiatu dezakegu hitzak laguntzeko. Eta bukaeran, barruko irudi handiei denbora eskaini, gozatzeko. Bestalde, aukera polita da guk geuk poema liburu gehiago sortu ditzagun.

Oharrak:




BEHIN OMEN ZEN DAMA ZAHAR BAT

Testua: herrikoia
Ilustrazioa: Saroa Bikandi Lopez
Hegoak, 2022
ISBN: 978-84-09-45590-4
24 orrialde
Formatu txikiko liburua

Liburuxka honek talde jolas bat dakar ilustrazio jostalariekin jantzita. Eskubide aitortzen atalean esatenzaigunez, J.K. Igerabideri ikasi zion liburuaren egile den Saroa Bikandik. Badira urte batzuk jolas honen bertsiokan kanonikoa publikatu zuela Igerabidek “Begira begira” (Elkar, 2006) testu bilduma heterodoxoan. Testuari ez zaio aldaketa handirik egin. Lau aldiz errepikatzen den egitura hau da: lehenik pertsonaia batek puzkerra bota omen duela esaten da, ondoren norabait joan omen dela, segidan [lekuaren arabera] objektu bat jaten omen duela, hurrena objektuaren arabera kaka egiten omen duela, eta azkenik [partaideentzako erronka izango dena botatzen da] hura norentzat? Aurrena mugitzen denarentzat! Lau aldiz errepikatzea ez da inondik egitura behar bat, eta testuaren izaerak bidea ematen du asmamenerako. Esaterako: Behin omen zen asto zahar bat; bota zuen puzker bat; joan omen zen askara, irentsi omen zuen zapaburu bat, egin omen zuen kaka begihandi bat; hura norentzat? Aurrena arnas hartzen duenarentzat! Testuaren egitura gramatikala berezia da, zalantzazko gertakarien “omen” markatzailea dakarrelako, baina baita aditz denborak eta gainerako ezaugarri sintaktikoak ere hizkuntz ikaskuntzarako oso egokiak direlako.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Testu honek jolastera garamatza. Errimadun ipuintxo honek lau aldiz galdetzen du “hura norentzat?” kolore bereziko kakari erreferentzia eginez. Horren aurrean hurrekin kaka hura guretzat ez izateko testuak agintzen duena egin beharko dugu... Kaka hura norentzat? Aurrena hitz egiten duenarentzat! esatean, denok ixoooo...

Oharrak:



XIRIMIRI

Egilea: Fernando Perez Hernando
Itzultzailea: Joseba Sarrionandia
Pamiela-Kalandraka, 2022
ISBN: 978-84-9172-265-6
36 orrialde
Album ilustratua



HONELA ALA BESTELA

Egilea: Maria Pascual de la Torre
Itzultzailea: Xabier Olaso
Pamiela-Kalandraka, 2022
ISBN: 978-84-9172-294-6
Album ilustratua

Elkar hartuta egotea aberastasuna dela aldarrikatzen duen albuma da. Zuhaitz batean kokatzen da istorioa. Simetrikoa izanik, lau adar ditu eskuinean eta lau ezkerrean. Ama ezkerreko barreneko adarrean pausatzen da, eskuinean txitak goitik beherako hurrenkeran: Ruth, Thor, Lili eta Rene. Euretako bakoitzak bere izenaren bokala baino ez daki erabiltzen hizketan. Euritan den lainoa eskuineko adarren parean jartzen da, eta Ruth bustitzen du. Hura azpikora joango da, laguntza eskatzen bere bokalarekin baino ez. Honela lau txitak mugituko dira, eta mugimendu bakoitzean euren hizketari bokal ugaritasuna ere gehituko zaie, amarengana iristean “a” ez gainerako bokal guztiak erabiltzen dituztelarik.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Album ilustratu honek txori familia baten aurkezpenetik abiatuz, hiztegiarekin jolastera gonbidatzen gaitu. Txori bakoitzak, bokal bakar batekin txiokatzen duenez, guk ere hurrei jolas berbera bideratu diezaiekegu. Hasteko bakoitzak bere izena esan behar du, txori bakoitzari dagokion bokalarekin. Beraien hizkuntza egituratzen joateko bidean, silaben errepikapenak eta hitzekin jolasteak duten garrantzia ahaztu gabe, ziurtasuna eta aberastasuna garatzen joango gara. Adinaren arabera, ipuineko esaldiak, bokal bakarrekoak, asmatzearen jolasa ere bideratu daiteke eta beraiek, trebatu esaldiak esatera ere, bokalen jolasarekin. Hiztegiarekin jolas aberats bat sortuz.

Oharrak:

Ageriko erantzuna izan ohi duten galderei ezohiko erantzun bisualak eskainita, umorea bilatzen duen album hau osatu du egileak. Orri biko bakoitzean galdera bat jaurtitzen du haur protagonistak, eta ilustrazioetan hainbat aukera (zein baino zein zoroagoa) aztertzen ditu. Esaterako, “Aizu, nola edaten duzu zuk, nola?” galderarekin protagonista mahaidun aukian ikusten dugu lehenik, belarritik edan eta sudurretik edan aukerak botatzen, segidako ilustrazioan zoruan dago, Pintto zakurrarekin, hankekin edalontzia helduta, kontortsionismo ariketa eginez edaten saiatzen, txakurra berdina egiten saiatzen delarik bere edateko ontziarekin. Nola lo egin, nola edan, nola jantzi, zer nolako oinetakoak, bero egoteko zer-nolako jantziak,... eta beste hainbeste galderari erantzuna ematera gonbidatzen gaitu. Ilustrazioak atzealde zurian eskaintzen dira, itxura batean koloretako arkatzez, tintaz eta ordenagailuz eginak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Jolasteko aukera dibertigarria izan daiteke, gelara objektu desberdinak eramatea eta liburuak proposatzen duen galdera egitea, sormenak ia noraino eramaten gaituen eta objektu bakoitzari aukera bi baino gehiago aurkitzea. Gehien gustatzen zaigun ideiekin argazki batzuk atera album ilustratu bat sortzeko.

Oharrak:



XAMUK ESAN DU BARKATU!

Idazlea: Caryl Hart

Ilustratzailea: Zachariah Ohora

Itzultzailea: Amets Santxez Munain

Ibaizabal, 2022

ISBN: 978-84-1370-309-1

32 orrialde

Album ilustratua

Album ilustratu honek, oinarrizko hezkuntzaren baloreak lantzea du helburu. Haur guztiek jolastu duten ezkutaketa jolasetik abiatzen da, denok identifikatuta sentituz. Horretan ari dela, Xamu protagonistak beste norbaiten izenean (Eztirenean) dagoen kaxa bat aurkitu du. Barruan zer ote dagoen galdetzen dio bere buruari, eta hainbat saiakera egiten ditu, kutxari kolpetxoak emanez, usainduz eta hitz eginez. Adiskideak ere inguratu dira eta, suspensea mantendu ondoren, Xamuk zabaltzea erabakitzen du. Sorpresa goxo bat da, txokolatzeko tarta bat, marrubiz apaindua. Tentazioari ezin eutsi, eta nahiz eta jakin ez direla zuzen jokatzeko, puskaka jan egiten dute. Jabea iristean, komeriak! Barkamena eskatzea nahikoa ez eta ideien bat bururatu beharko zaio Xamuri, egindako kaltea konpontzeko. Letra larriz idatzita dago. Komikietako bunbuiloak erabiltzen dira.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Guk taldeari solasaldirako atea irekiko diogu, barkamena noiz eskatzen duten beraiek, bakoitzaren esperientziak konpartituz, eta soluzio posibleak planteatuz taldean. Era berean egile beraren “Xamuk esan du nirea da!” irakur genezake, pertsonaiari hartutako atxikimendua aprobetxatuaz antzeko solasaldi gehiago edukitzeko

Oharrak:



MUNSTROA AL ZARA?

Egilea: Guilherme Karsten

Itzultzailea: Imanol Salegi Urbieta

Ibaizabal, 2022

ISBN: 978-84-1370-305-3

40 orrialde

Album ilustratua

Irakurlearekin interakzioa bilatzen duen umorezko albuma da. Protagonista munstro bat da, itxuraz barregarria dena, bere burua aurkeztean zein beldurgarria den azpimarratzen saiatzen dena. Bera gaiztoa dela dio lehen orrialdean, ez inork ez ezerk ez duela beldurtzen. Hurrengo orrialdean irakurleari esaten dio laguntxo baten bila ari dela, elkarrekin gauza beldurgarriak egiteko. Honegatik, irakurleari galdera botatzen dio: “Eta, zu, irakurle, munstroa al zara?”. Hurrengo orrialdeetan munstro batek izan beharko lukeen itxura ba ote duen galdetzen dio irakurleari, isats luzea, atzaparrak, eta begi hori handiak. Ezezkoa jasotzen duenez, liburua amaitu dela dio munstroak, baina ez da hala. Irakurleari begira jartzen da orduan munstroa eta hau eta bestea egiteko gai ote den galdetzen dio (hartzak erakutsi, orro, zanpatu), oraingoan baiezkoa lortzen duenez, pozik jartzen da, baina bat-batean izutu egiten da irakurlearekin... Ilustrazioak oso garbiak dira, atzealde kolore bakarreko neutroekin. Komikietako bokadiloak erabiltzen dira.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Jolaserako bidea irekitzen digu, psikomotrizitatea barne. Munstro gaiztoak desmitifikatuz, beraiekin jolas, keinu eta barre egitera gonbidatzen gaitu. Munstroa izateko eman behar diren urratsak azaltzen dizkigu. Guk hurrei munstro izateko jolasa irekiko diegu, ipuinarekin batera keinuak eginez, mugimenduak, ahotsak, etab...landuz. Bukatzean, gure taldeko munstroa zein den hautatuko dugu denon artean.

Oharrak:




BASO ILUN ETA SAKONEAN

Egilea: Delphine Bournay
Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz
Txalaparta, 2022
ISBN: 978-84-18252-97-6
26 orrialde
Album ilustratua

Beldurra eta samurtasuna dosi egokitan kudeatzen saiatzen den lotarako ipuina da album ilustratu hau. Hastapenetan albumak irakurlea tentsioan jartzen du, iluntasun beldurgarrian begiak zabaltzen baitira, hortzak erakusten baitira, uhuriak entzuten baitira... Segidan, ordea, tentsio burbuila hustu egiten da, otso ama bere kumeei, iluntasunean ikusten ditugun begi hortz horiei, hizketan hasten zaienean. Antza otsokumeek ezin dute lo egin lotarako erritualaren zer edo zer ahaztu zaiolako amatxori. Galde erantzunen bidez falta dena lotarako kantua dela argitzen dutenean, amatxok pieza polit bat abesten die eta, begitzarrak begitxo eginda, loak hartzen ditu kume guztiak. Liburuaren egitura haurra tentsiotik lasaitasunera eramaten saiatzen da. Ama pijama prakak jantzita agertzen delarik, lotarako erritualaren pauso aski ezagunak birpasatzen direlarik, eta lotarako kantua xuxurlarako egokia den pieza izanik, baliabide egokiak proposatu dira helburua lortzeko.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Lotara joan aurreko momentuaz hitz egiten digu liburu honek. Hasieran gauaren iluntasunaz, beldurrez, bakardadeaz eta amaren babesaz dihardu. Pertsonaiak otso dira, betidanik beldurrarekin lotu dugun animalia, album honetan, berriz, gizatiartutako otsokumeak eta otso amak erakusten dizkigute. Lotarako pupua, musua, ipuina, etab... bezalakoak dituzte gustuko. Abestia ere, bukaera bezala. Guk abestia ikasi dezakegu, otsoa desmitifikatuz eta gaueko abesti goxo bilakatuz. Ipuinean erritmoa baita momentu oro nabariena.

Oharrak:



MAMUTA IKUSI DUT!

Egilea: Alex Willmore
Itzultzailea: Imanol Salegi Urbieta
Ibaizabal, 2022
ISBN: 978-84-1370-306-0
32 orrialde
Album ilustratua

Album ilustratu honek Hego polara bidaiatzera eramaten gaitu, Antartikara hain zuzen ere. Esploratzaile talde bat pinguinoak ikertzera joan da hara. Euretako batek, gorriz jantzitakoak, ordea, ez ditu pinguinoak maite, berak mamutak ikusi nahi ditu, edo hala dio behinik behin, nahiz eta gainerako esploratzaileek hamaika aldiz esan dioten han ez dela mamutik. Bere bideari ekiten dio mamutaren bila, eta bai ikusi ere mamuta, mozorrotuta eta dantzan. Beste taldekideena bueltatzen da ziztu bizian, ikusitakoaren berri ematera. Tamalez inork ez dio sinesten, halako animaliak desagertuta daudela esanez. Bigarren aldi batez ere ikusten du, eta ez diote sinesten. Hirugarrengoa, esploratzaile taldea ikusitako lekura eramatea lortzen du, ilustrazio ederren bitartez gu ere bidai horretan murgilduz. Hasieran ez dute mamutik ikusten, eta etsita daudenean han agertzen da mamut erraldoia. Denek korrika alde egiten dute izaturik. Mamuta kobazulora itzultzen da, gizaki bat ikusi duela esanez bere familiakoei.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Istorio honek historiaurreko bibliografia zabala irekitzeko bidea ematen digu. Taldearekin historiaurreko animaliak, mundua, izakiak, bizimodua, etab... landu ditzakegu, album hau abiapuntu izanik. Liburu asko baitaude historiaurrea lantzeko, modu desberdinetara.

Oharrak:



KIWI HARTZA

Idazlea: David Gauthier
Ilustratzailea: Claire de Gastold
Itzulpena: Aztiri zerbitzuak
Ttartalo, 2019
ISBN: 978-84-9843-861-1
36 orrialde
Album ilustratua

Paradoxa kitzikagarri bati helduta sekulako abentura-ipuina osatu dute album honetan. Kiwi izeneko neskato protagonista mozorro festa batera gonbidatzen dutenean hasten da abentura. Hartz mozorroarekin etxetik ateratzen da Xalba lagunaren festara. Bide laburra basoa gurutzatzen dela-eta, beldurrari ezikusiarena eginez barneratzen da. Badoala, haur bitxi bat topatzen du basoan, hizketan ez dakiena, usainka ari dena. Elkar izutzen dutenez, badoa haur bitxia eta Kiwik jarraitu egiten du, jakin-minez. Aurreraxeago dagoen soilgune batean haurra beste haur batzuekin topatzen du, guztiak ere oso "pizti" dabiltzala. Elkar ulertzen ez dutela ikustean, alde egiten du Xalbaren etxerantz. Festara iristean denak animaliaz mozorroturik daude. Halako batean, baina, haur bitxiak agertzen dira, zalaparta batean. Kostata, jolasean elkar ulertzen dutela oharturik, denbora-pasa ederra egiten dute, zubiri-zubirika, korroan,... Eguna amaitzean bakoitza bere etxera doa, eta bakoitzak bere mozorroa kentzen du, pertsonen animalia mozorroak kentzen dituzte, eta animaliek pertsona mozorroak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ipuin honek sortu ditzakeen itaunen artean, badago basoko animaliek kanpoan bizi garenon inguruan zer irudi duten pentsatzera garamatzana. Nola uste duzue ikusten gaituztela galderaren ondoren, errenkadan datozen erantzunekin hausnarketa politik egina daitezke. Bestalde, mozorroa bera. Basoko animaliak, hurrez mozorrotu dira. Haurrak, basoko animaliez. Nor gara mozorrotzen garenean? Gu geu, ala mozorro bezala hartu dugun hori? Edo bien arteko nahasketa bat? Eta, nola ez, mozorrotzean elikatzen ditugun estereotipoen inguruan pentsatzeko aukera ederra da, baita ere.

Oharrak:



LARANJONDOA

Egilea: Andrea Antinori
Itzultzailea: Uxoia Iñurrieta
A fin de cuentos, 2022
ISBN: 978-84-124908-3-1
44 orrialde
Album ilustratua

Kateatutako ekintzen segida azkar batek umorezko istorioa gordetzen du. Laranjondoa jai, hazi eta heldu egiten da, laranja ugari emanaz. Txoriek laranjak kentzen dizkiote, lorazainak adarrak inausten dizkio, beldarrak hostoa jaten dio, txakurrak pixa egiten dio. Laranjondolari haserreak gain hartzen dio, "nahikoa da" oihukatzen du, eta txoriari arrautzak lapurtzen dizkio, lorazainari mototsa moztzen dio, beldarrari kosk egiten dio, zakurra bustitzen du. Orduan polizia jarraika hasten zaio, laranjondoa ihesi doa, mendietatik eta hirietatik barrena doa, badoa abioian alde egitea lortzen duen arte. Laranjondoa uharte lasai batean jartzen da bizitzen, eta, bien bitartean, txoriak, lorazainak, beldarrak eta txakurrak laranjondo berri bat zaintzen dute.

Hitzik gabeko hotsak dira gehienak, onomatopeiak. Ilustrazioek baliabide minimoetara jotzen dute, adierazkortasuna galdu gabe, minimalismoan lerratu gabe.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburu dibertigarri eta zoragarri honen irakurketarekin ondo pasatzeaz gain, bere estilo piktorikoan jar dezakegu arreta, adierazpen plastiko bat proposaturik. Lau kolore erabiltzen ditu, gure ariketa, berdina izan daiteke. Lau koloreekin istorio surrealista bat irudikatzea, testuan bakarrik onomatopeiak erabilia. Gometsekin ere egin dezakegu, abstrakzio ariketa probokatuz.

Oharrak:



BADATZOZ PIRATAK!

Idazlea: John Condon
Ilustratzailea: Matt Hunt
Itzultzailea: Amets Santxez Munain
Ibaizabal, 2022
ISBN: 978-84-9106-788-7
32 orrialde
Album ilustratua

Artzain gezurtiaren ipuinaren bertsioa da. Esanguratsuak gertatzen diren aldaketa gutxirekin ipuinari buelta bat ematen dio eta ezusteko garapena du, artzaintxoarena ezagutzen dugunontzat ere. Kontakizuna kostaldeko herri batean kokatuta dago. Bertako Tom haurra egunero igotzen da muino baten tontorrera, piratak agertzen ote diren ikustera. Denbora luzea zen agertzen ez zirela, baina Tomek bazekien itzuliko zirela. Egun batez, urrutian itsasontzi bat antzeman zuen, eta piratak zirela sinetsirik lasterka jaitsi zen herrira, txilina joaz, piratak bazetozela oihukatuz. Herritar guztiak ahalik eta hobekien ezkutatu ziren, baina... Lau aldiz errepikatuko da eta azkenekoan korapiloa askatuko da. Liburua tamainaz handia da (29x25cm) eta ilustrazioek lekua dute orrialdeak betetzeko. Kolore bizi asko erabiltzen ditu eta marrazketa infantila erakusten du, figura atseginekin. Kontakizunak jarrera positiboa erakusten du, genero-roleri dagokienez.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ipuin honen irakurketa bera izan daiteke bitartekaritza lana. Hau da, guk ozen irakurtzean, gurekin batera testua eta irudiak disfrutatzeke aukera eman, baliteke, beraiek liburu eskuetan hartuz, irakurtzea. Testua osorik deskodifikatzeko gai ez badira ere, ezaguna duten soinua (gure ahotik entzun dutena) orrialdeen aurrean errepikatzean alde batetik, beraien hitzekin kontaturikoaz uztartuz, liburuaz gozatu dezakete. Gozamina da bide bakarra.

Oharrak:




KIXKUR PINTTOREN ARREBA

Idazlea: Iñigo Astiz
Ilustratzailea: Mikel Valverde
Elkar, 2022
ISBN: 978-84-1360-212-7
32 orrialde
Ipuin ilustratua

Pintto txakurraren izaera zalantzan jarriz, mitoen inguruan hausnartzen laguntzen du ipuin honek. Jakintsu itxurako elefanteak kontaktzen digu istorioa. Abestiko Pinttok ba omen du arreba bat, Kixkur izenekoa, anaiaren erruz zorigaitzean bizi dena. Izan ere Pintto ez omen da eta batere jatorra eta txukuna etxean. Lan guztiak Kixkurri eginarazten omen dizkio, errietan eta mehatxuka, gainera. Horiek denak ongi eramaten omen ditu Kixkurrek, egonarri handiko txakurra da-eta, baina ezin eramanezkoa egiten omen zaio jendeak bere izenetik ez deitzea, baizik eta "Pinttoren arreba" izendatzea. Behin batez anaiak gustu txarreko broma bat egin zion kontu honekin, eta inork espero ez bezala amaitu zen dena. Testua eta ilustrazioak elkarren segidan doaz, eta maiz irudi bidezko kontaktak hartzen du aurre. Testua ahozkoasunetik gertu badago ere, elkarriketa gutxi daude eta narratzailearen ahotsa da nagusi.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ipuin honek denok ezagutzen dugun Pintto-Pintto kantua dakarkigu gogora eta testuak berak planteatzen dituen bertsioak abesten eta berriak sortzen, izugarri gozatu dezakegu. Bestalde, liburuak arreba txikiaren lekuan jartzeko aukera ematen digu moralkeriarik gabe. Harremanez, famaz, botere-harremanez... hitz egiteko beta eman dezake liburu honen irakurketak.

Oharrak:




HEMENDIK EZ PASA!

Idazlea: Isabel Minhos
 Ilustratzailea: Bernardo Pego
 Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz
 Txalaparta, 2022
 ISBN: 978-84-19319-16-6
 38 orrialde
 Album ilustratua

Barrea eta hausnarketa uztartzeko gai den album ilustratua da. Proposatzen den egoera komikoa da: jeneral batek soldadu bat etorrarazten du ezker eta eskuin orrialdeak batzen dituen mugara, eta agindua ematen dio inor ez dadila eskuineko orrialdera igaro. Berehala jendea agertzen da ezkerreko orrialdean, eta haietako lehenak soldadua debekua jasotzen du. Pilotzen da jendea ezkerreko orrialde osoa betetzeko adina eta egoera ez da aldatzen. Jendea era askotakoa da, izozki-saltzailea, astronauta, ET estralurtarra eta Txanogorritxo tarteko. Gako unea iristen da pilotan ari diren bi haurri baloia eskuineko orrialdera erortzen zaienean, soldadua baimena ematen baitie baloi bila joateko. Hurrengoetako asko ere galdezka hasten dira, baita ikusmiran ari diren mordoxka bat ere, eta agindu absurdu hari ezin gehiago eutsirik jendea pasatzen uzten dio “ez esan hemendik zatozela” eskaera konplizea esanda. Berehala agertzen da jenerala, ordea, eta istorioak merezi duen amaiera eskaintzen zaigu, autoritatea askok onartzen duten botere delegatua bada ere, autoritarismoa inor gutxi onartzen duelako.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Debekuaren galdera egiten digun liburu honek, gertatzen denaren inguruan hitz egiteko aukera eskaintzen du. Hausnarketa filosofiko bat egin dezakegu, guk nola jokatu genukeen, ze pertsoniarekin identifikatzen zaren, nor izatea gustatuko litzaizukeen, debekua jartzen duenaren lekuan jartzen bagara zelan sentituko zinatekeen, arau bat tinko mantentzeko gai sentitzen zaren, arauak apurtzea erraza egiten zaizun. Bestalde, liburuak erabiltzen duen errekurtsio berria beste liburu batzuetan ikusi dugu? Ezagutzen ditugu errekurtsio hau erabiltzen duen beste libururik?

Oharrak:



LE TRAIN

Egilea: Hubert Poirot-Bourdain
 La Joie de lire, 2022
 ISBN: 978-2-88908-617-7
 22 orrialde
 Album ilustratu mutua

Irudimenarekin jolasteko gonbitea luzatzen digu album ilustratu honek. Tren batera igotzen dira neskatoa eta mutikoa, makina-burutik hasita, eta banan bana bagoiak zeharkatzen hasten dira. Bagoi bakoitza desberdina da, diseinuz, estetikaz, eta funtzioz. Lehen biak bidaiarentzako bagoi “arruntak” dira, hurrena jangela- eta sukalde-bagoiak datoz, segidan egurra eta kotxeak garraiatzekoak, ondorengoak harrigarriagoak dira, ez-ohikoak edota ezinezkoak: akuario-bagoia, igerilekua, negutegi viktoriarra zuhaitz tropikalekin, zoota, golf zelaia, irudi erakusketa, zirkua, zinema, esne zisterna, liburutegia su tximinia eta besaulkiekin. Azken hirurak bidaiariarenak dira, berriz ere: literaduna, besaulkiduna, eta egongela. Beste makina-burutik irteten dira. Eragin askorik ez badu ere, egunsentian igo dira trenera, eta gaez jaitsi. Bost metroko luzera hartzen duen akordeoi-liburua da. Etzana, 14x22 cm-ko orrialdeak dituena, kartoizkoa. Akordeoiaren alde bakarrean daude ilustrazioak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Tren honetan denetarik dago, gai izango ginateke gu bagoi berriak asmatzen, eta margotzen? Sormenerako ariketa ludiko eta dibertigarria izan daiteke. Taldeka bost metroko trenak sortu ditzakegu, eta eskolan erakusketa girotu bat antolatu. Oso interesgarria izango litzateke trenen inguruko dibulgazio liburuak ekartzea, txoko bat prestatzea, etxean ditugun trenak ekartzea, trenean bidai bat egitea.

Oharrak:




ZARATA DO MAIORREAN BOLIIN ETA PIANORAKO

Egilea: Iban Barrenetxea
Ikaslar, 2022
ISBN: 978-84-18410-44-4
36 orrialde
Album ilustratua

Bihurrikera musikatu baten partaide izango gara album honekin. Egongela viktoriar batean bi haur musika jotzen ari direla ikusten dugu lehen orrialdean. Mutikoa pianoan ari da, neskatoa biolinarekin. Argia sartzen uzten duten leihoak altuak dira, lits urrekarak dituzten izokin koloreko errezel ondulatuekin, ateburua zutabe eta igeltsero-lan neoklasikoarekin. Erdian alfonbra biribil bat dago, zeinaren gainean kokatzen den piano isats-luzea. Haren albo batean hankadun atrila, hainbat liburuetara igotako neskatoak partitura irakur dezan. Hormaren kontra mahaitxo hankaluzea, azpian katua lotan duena, gainean loreontzia larrosaz betea. Hantxe, horman Beethoven handiaren erretratua. Haurrak okasiorako jantziak. Guztia gorria eta berdea nagusi dituzten kolore indargeetan. Agertokia ez da aldatuko istorio osoan. Aktoreak, aldiz, jotzen ari diren musikaren gaineko desadostasunak agertzen hasiko dira, “Prestissimo!” oihukatuko du bata, “Dolcissimo con espressione” erantzungo bestea, giroa berotu egingo da, katua asaldatuko, Beethovenek ezinegona agertuko du... “Con fuoco!”, “Lacrimoso...”, “Furioso!”,... A zer panorama aurkituko dutena gurasoek.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Zaratak zelako zarata egiten du? Zarata mota desberdinak daude? Musika irakaslearen laguntzarekin zarata desberdinen katalogo honen soinuak entzuteko eta sortzeko tailer edo ekintza dibertigarria egin daiteke.

Oharrak:



ERLEAK ETA LUR-ZIZAREAK

Idazlea: Florence Thnard
Ilustratzailea: Benjamin Flouw
Itzultzailea: Miren Agur Meabe
Tartalo, 2021
ISBN: 978-84-9843-919-9
48 orrialde
Ezagutza liburua

Ikuspuntu naturazale batetik abiatzen den zoologia liburua da. Zehaztasunez entomologia sailari dagokiola esan beharko bagenu ere. Bi intsektu hauei buruzko ezagutza sarrera orokor baten funtzioa konplitzen du, azalekoa bai, baina ongi egituratua, benetako ezagutzarako jauzia emateko egokia. Liburuaren formatua berezia da, eta honek ahalbideratzen du bi intsektuon informazioa aldi berean jasotzea. Osatzen duten hemeretzi ataletako bakoitzak ezker-eskuin zabaltzen diren bi orrialdeak hartzen ditu. Bi orrialdeek irudi bakar bat osatzen dute, behean lur barrena dagoelarik, erdi parean lurrazala, eta hortik gora zerua. Honela eginez bi intsektuon ekosistema begi kolpe batez ikusten da. Beraz, orrialdea pasatzen dugun aldiro ezagutza arlo desberdin bat topatzen dugu, hala nola sarrerakoan intsektuon eboluzioaz eta egungo egoeraz mintzo zaigu, segidakoan anatomia azalpenak jasotzen ditugu, eta hirugarrengoa adierazten da ekosistema askoren iraupen eta garapenerako gakoa direla.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ez-fikziozko liburuen munduan sartzeko ariketa polita izan daiteke ikasle bakoitzak gai honen inguruan aurkitzen duen liburua ekartzea liburutegitik edo etxetik, eta aste batean gure gelan biblioteca zientifiko, dibulgaziozko bat sortuko genuke.

Oharrak:



JAKELINEN EGUNEROKOA

Idazlea: Nerea Ibarzabal
 Ilustratzailea: Higinia Garay
 Ikaslar, 2022
 ISBN: 978-84-18978-23-4
 48 orrialde
 Eguneroko ilustratua

Irudimenarekin jolasteak eragiten duen plazer mugagabea jartzen du erdigunean lan honek. Ia bederatzi urte dituen Jakelin protagonistak bere eguneroko sekretua irakurtzea debekatzen digu, azaletik bertatik. Orrialdea pasa eta debekua suntsipen mehatxu bihurtzen du, atzera zenbaketa eta guzti. Bum!!! koloretsu batek hartzen ditu hurrengo bi orrialdeak. Eta jada, baimenik jaso gabe, egunerokoan kuxkuxean hasiko gara. Irailaren 17ko afalordukoa da Jakelineren lehen idatzia, eta urriaren 17koa azkena. Lehen afalordu hartan “begiak zabaldu” omen zitzaizkion, ordura arte ez bezala ikusten zituen mahaiaren bueltako gainerakoa, eta jada aita ez zen gehiago aita, ez ziren bezala ama ama eta anaia anaia. Behingoagatik konturatu zen ordura arte fartsa batean bizi izan zela, eta guztia ikertu behar zuela. Umore handiz, pertsonaia eszentriko bat eraikitzen zaigu begien aurrean, pentsamendu eta ateraldi barregarriak dituena. Ilustrazioek, gainera, kontakizunaren parte garrantzitsua dira, testuingurua ezartzen laguntzen dutelako, eta irakurraldiari sekulako dinamismoa eranstean diotelako.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Autobiografia lantzeko aitzakia ezin hobea dugu. Adibide hau hartuta bitartekariak pertsonaia desberdinen inguruan dauden egunerokoak bildu ditzake adibide desberdinak emateko. Eta bakoitzak berea egiteko, asmatzeko, tailerra egin dezakegu, irakurketa hau eta abiapuntu berdina duten beste batzuk bide lagun izanik.

Oharrak:



LO (EZ) EGITEKO ISTORIO BAT

Idazlea: Urtzi Reguero
 Ilustratzailea: Irati Eguren
 Elkar, 2021
 ISBN: 978-84-1360-148-9
 32 orrialde
 Ipuin ilustratua

Amets gaiztoekin zer egin daitekeen pentsatzen laguntzeko egokia izan daiteke ipuin hau. Moldiver izeneko hauraren esperientzia ezagutuko dugu, gauetan izututa esnatzen da, gurasoei deitu beharrean, garrasika. Nola edo hala bideratu behar dela iritzita, amak eskaini dio koaderno bat giltzarrapoa duena. Barruan amesgaiztoa marraz dezan aholkatu dio, eta ondoren giltzaz itxi dezala. Gaua iristean, ordea, amesgaiztoa ondoezik dagoela ohartzen da Moldiver, eta jakiten du ez diola kalterik egin nahi. Ondorioz biak elkarrekin sartzen dira ohean eta dena bakean amaitzen da. Istorioaren amaierako garapen honek erreferentzia zuzena egiten dio Mercer Mayer idazle eta ilustratzaileak idatzi zuen “Amets Gaizto nire armairuan” (Pamiela-Kalandraka, 2020) liburuari.

Lehen irakurleentzat istorio paregabea, denok ditugun amets gaiztoetatik abiatuta, suspensea eta umorea nahasten ditu. Protagonistak bere amets gaiztoa giltzapetzen du, fantasia puntu batekin, marrazkiaren bitartez. Baina orain bere amets gaiztoa dago ikaratuta, giltzapetu dutelako.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Lagun bilakatzen da amets gaiztoa istorioan zehar, horrela bakeak eginez loarekin. Beraz, guk ere berdina proposatu diezaiogegu taldeari, liburua irakurri ondoren. Bakoitzak bere amets gaiztoa irudika dezala ilustrazioaren bitartez. Eta taldearekin konpartitu istorio eta marrazkiak. Ondoren, ipuineko protagonista bezala, giltzapetu dezakete edo aske utzi, beraien erabakia da.

Oharrak:



MARRAKATXARRA

Idazlea: Inazio Mujika Iraola
Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga
Erein, 2022
ISBN: 978-84-9109-731-0
56 orrialde
Ipuina

Beldurrek zein forma bitxiak hartzen dituzten ikustarazten digu ipuin honek. Aitaxoren lan mahaian argazki berri bat ikusi du Anderrek. Amona gazte agertzen da, aitaxo izan behar duen umetxoa besotan duela, eta euren ondoan agure zahar bat, beldurgarria. Orduan Anderrek sabelean minzor bat sentitzen du. Aurrerantzean sarri sentituko duen mina, agurearekin egunero izango dituen amesgaiztoak bezala. Eta nola Ander oso mandarina zalea den, bada pentsatu du mandarina hazi bat tripan gelditu zaiola, eta halaxe esan die gurasoei lehenik, eta medikuari ondoren. Ekografia egin diote, eta hantxe ikusten dugu hazia. Botika hartu eta etxera, kakan joango zaiola errepikatuz elkarri. Baina argazkiko agureak han jarraitzen du, eta mina ez da joaten, eta prozesua errepikatuko da, harik eta, halako batean, bere beldurra aitarekin eta amarekin partekatzen asmatzen duen arte.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Zuek ba al daukazue beldurra uxatzeko hitz sekreturik? Asmatuko ditugu denon artean desberdinak, idatzi egingo ditugu, koaderno bat sortuko dugu liburutegian eskuragarri izateko. Beldurra uxatzeko hitz sekretuen liburua deitu daiteke, beste izenbururik bururatzen? Posible al da mandarina pipita bat tripan lehertzea eta zuhaitz bat tripa barruan haztea? Galdera honi erantzuna bilatzea erronka zientifikoa litzateke.

Oharrak:




MARLENE ETA TAXIZAPATA

Idazlea: Mariasun Landa
Ilustratzailea: Elena Odriozola
Erein, 2022
ISBN: 978-84-9109-860-7
68 orrialde
Ipuina

Ametsak izatearen garrantziaz hitz egiten digun ipuina da. Bi aktore ditugu, leku bat eta istorio malenkoniatsu bat. Zortzi ataletan banatutako istorio honek “izenik gabeko kalea” erakusten digu, bazterrera utzitakoen leku gisa, anonimoa, ezker eskuin dauden erakusleho hautsi eta afixa higatuek jantzia, eraikin hondatuak eta arima errariak. Han bizi da Marlene, zine izar baten besoetan jaio zen katu urdina, kantari ospetsua izandakoa katuen kabaret eta ikuskizun-aretoetan, urdin kolorea galdu zuenarekin batera itzalean zebilena. Taxizapata Z’Apa Tapatapa deitzen da, hau ere loria ezagututakoa botika-saltzaile dotore baten oinetan, etsiak jo nahi ez, eta taxi lanak konpainiaren truke eskaintzen dituena. Liburuan zehar hiru elementu hauek deskribatzen dira, poliki, une gorena iritsi arte Cheshire Rock Clubean.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Idazleak kontatzen digun istorio ederra ikasleei ozen irakurri diezaiekegun horietakoa da. Kapitulu kapitulu, tartea hartuz batetik bestera. Irakurtzearekin batera, testuaren ulermenak izan ditzakeen geruza desberdinei lekua egin ahal zaie kapitulu bakoitzaren ondoren, gertatu dena komentatuz. Horrela, ondoren beraiek beraien kabuz irakurriko balute (irakurketa autonomoa eginez) errazagoa egingo zaie dena lotzea.

Oharrak:



LA BELLE

Idazlea: Uxue Alberdi
Ilustratzailea: Bruno Hidalgo
Elkar, 2022
ISBN: 978-84-1360-228-8
60 orrialde
Ipuin luzea

Guregan arrastoa uzten duten pertsonen oroimina da eleberrri honen hausnarketa-gai nagusia. Daniellek bere haurtzarora eramaten gaitu, bizilagun berri bat iritsi zenekoa gogora ekartzeko. Bizilaguna gizon txiki bat zen, Doro(teo), zirkuan ibilitakoa, erretiroa hartu eta etxera itzuli zen arte. Gizon xarmenta, Danielle maitekiro hartu zuen, eta zirkuko bizimoduaren berri eman zion, zertzelada batzuen bidez. Xaramelaturik entzun zizkion lanbide exotikoaren ezaugarriak, bai eta alderrai ibiltzearen bizipen hunkigarriak. Gogoan du ere Daniellek begirada aldatzen hasi zitzaiola, bereziki aitak “Handia” filma ikustera eraman ostean. Eta Dororenganako mirespena ez ezik, errukia ere piztu zitzaiola, ulertu zuelako mundu honetan ankerkeria ere presente dagoela, batik bat halako izaera hauskorra duten pertsonen kontra. Kontakizunak Dororen heriotzarekin amaitzen du, tonu erromantikoan. Guztira hamazazpi atal ditu. Ilustrazioak atal guztietan daude, eta komikietako bineten eitea erakusten dute. Doroteok frantses hitz zenbait erabiltzen dituenaz, amaieran hiztegitxo bat dago.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Edozein kasutan bezala, lan honetan ere, aurkezpena egitea oso lagungarria izan daiteke. Izenburuaren ulermenetik hasita. Askotan ahaztu egiten zaigu izenburua ez ulertzetik abiatzen dena, zailagoa duela bidea. Horregatik, zer da “La Belle”? Zer esan nahi du? Zein hizkuntzatan? Eta nola ez, aurkezpenean zirkua azalduko zaigula kontatuko genieke eta zergatik ez, zirkuez dakitena eta ez dakitena aipatzeko aukera ematea ondo legoke. Horrela, testuingurua eraturik, errazagoa egingo zaie hainbeste ertz dituen lan zoragarri hau disfrutatzea.

Oharrak:



MUNDUA ULERTZEKO IPUINAK 2

Idazlea: Eloy Moreno
Ilustratzailea: Pablo Zerda
Itzultzailea: Fernando Rey Escalera
Denonartean, 2022
ISBN: 978-84-17940-90-4
160 orrialde
Ipuin bilduma

Herri jakintzaren barruan kokatu ohi diren ipuin hezitzaileen bilduma da. Idazleak tradizio desberdinetatik jasotako aleak eskaintzen dizkigu, bakoitza gai jakin bati buruzkoa, eta aldi berean denak ere buru argitasuna aldarrikatzen dutenak. Liburuaren hitzaurrean aitortzen duenez, ipuin bakoitzarekin “bi gauzatarako bidea” izango dugu: “maiz oharkabean pasatzen zaizkigun egoerei erreparatzeko” eta “munduari beste begiekin begiratzeko”. Funtzionamendu aldetik, mekanika bertsua erakusten dute: lehenik egoera bat aurkezten zaigu, hasiera, korapiloa eta amaiera dituen; gertatzen den bitartean batzuetan, eta amaitutakoan bestetan, hausnarketa “arrunta” eskaintzen da, kaleko ohiko pentsamenduarekin egina, azkenik “benetako” hausnarketa dugu, hau bai, jakintzaz betea. Guztira hogeita hamasei ipuin dira, azkena ez gainerako guztiak moldapenak. Izan, azken ipuina Eloy Moreno beraren sorkuntza da, asmoz aurrekoen heziketa-asmo ildoan kokatuta, baina formaz desberdina, lerro etenez emana, poema bat bezala antolatua. Ilustrazioak zuri-beltzak dira, ordenagailuan eginak, estetika retroan.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Egunero bat irakurtzeko erabat aproposa da liburua. Helduak ozen irakurri dezake lehenago eta beraiek ondoren berriro. Ala helduak ipuin bat eta beraiek hurrengoa. Beti-beti galderak egiteko aukera ematen duten ipuinak direnez, haur eta gazteentzat filosofia praktikatzeko tartea hartzeko ezin aproposagoak. Gainera, ipuinek, sakonera azal desberdinak dituzte entzuleen gaitasunaren arabera, handik edo hemendik jotzeko.

Oharrak:



KUKUAREN KANTUA

Idazlea: Idoia Garzes
Ilustratzailea: Belatz
Elkar, 2022
ISBN: 978-84-1360-175-5
76 orrialde
Eleberria

Migratzaileei egiten zaien harrerari buruz hitz egiten digun nobelatxo da. Martin protagonista eta narratzaileak Flash back luze batean kontatutako istorioa da, Jaxinto deitzen den gizon bat ezagutu zituenekoak memoriara ekarriz eginak. Duela lau urte gertatu zen, eta orduan haurra zen Martin. Jaxinto herrira etorri berria zen, eta bertakoen arbuioa jasotzen zuen leku guztietan, baita Martinen etxean ere. Bereziki erasokorra zen Martinen lagun mina, Joxe. Ez zuen denborarik galtzen herrian gertatutako edozein ezbehar berehala leporatzeko Jaxintori. Aurreiritzi horietatik aparte zegoen Martin, eta bere xalotasunean kontatzen dizkigu Jaxinto ezagutu zituenekoak. Nola zen txoriei buruzko jakintsu bat, berari hainbat eta hainbat irakaspen eman zizkionak. Kukuarenak, esaterako, Jaxintoren bizitzaren metafora izan ziren, eta Martinek behin baino gehiagotan erabili zuen Jaxinto galdekatzeko. Kontakizuna bederatzi ataletan banatuta dago, eta hamaika ilustrazio ditu, zuri-beltzean, kontakizunaren une jakin batzuk azpimarratzeko balio dutenak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburuaren irakurketarekin “Txorindologo” asmatuiko kontzeptuaren zentzuari buruz pentsatzetik, protagonistaren gurasoek Jaxintori buruz esaten zituztenak (hezurbeltz, trenak ekarritakoa,...) nondik atera dituzten hausnartzera joan gaitezke. Nola ez, liburuaren hezurdura adin desberdintasun handia duten bi pertsonen arteko harreman sakon eta berezia denez, gure harreman kutun horietan pentsatzeko aukera ematen du. Berdin du zenbat urte ditugun honetan pentsatzeko. Horregatik, helduok pistak eman beharko dizkiegu.

Oharrak:




MAITAGARRIAK

Idazlea: Sébastien Perez
Ilustratzailea: Fatemeh Haghnejad
“Bluebirdy”
Itzultzailea: Amets Santxez Munain (Bakun)
Ibaizabal, 2022
Ez-fikzio liburua

Izaki miragarrien entziklopedia dugu hau. Historian zehar pertsona miresgarri hauek tradizioaren parte izan dira munduko herrialde askotan. Beraien istorio miresgarri eta harrigarriak ditugu hemen. Liburua atalka antolatuta dago, eta atal bakoitzean gai bat proposatzen da. Guztira zortzi atal-gai hauek agertzen dira hurrenkeran: Elementuen (uretako) maitagarriak, Patuaren (amabitxi) maitagarriak, Beste munduko (heriotzaren) maitagarriak, Maitagarri maiteminduak, Maitagarri mendekariak (gaiztoak), Herri xehearen maitagarriak, Maitagarri babesleak, Eromenaren maitagarriak. Atal bakoitzean izendatzen diren maitagarrietatik lehenarekin ipuin laburtxo bat eskaintzen da, haren ezaugarriak erakusteko moduan. Gainerako maitagarriak zertzelada deskribatzaile batzuekin aurkezten dira. Eranskin gisako azalpen testutxoak daude maitagarriek emandako dohainak, landareak, objektu madarikatua eta halako azalpenekin. Ilustrazioek testuak adierazi ezin duen informazio osagarria ematen dute, eta liburuaren edergarri lana egiten dute.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Era guztietako izaki maitagarrien (maiteminduak, gaiztoak...) usadio eta ohituren berri izango dugu. Bide batez, taldeari munduko mapak emango dizkiegu. Egun bakoitzean bi pertsonaia miresgarri irakurriko ditugu, eta beraiek mapan kokatu beharko dituzte, bi ezaugarri esanguratsuenekin batera. Horrela, munduko mapa betetzen joango gara, begi aurrean jarriz betidanik gure irudietan izan ditugun mundu eta izaki miresgarriak. Gaian sakontzeko ikus egile beraren “Maitagarrien belarrak” (Ibaizabal, 2011).

Oharrak:




HANIELLEREN TXALUPA

Idazlea: Emilia Arias
Ilustratzailea: Cintia Martín
Itzultzailea: Uxoá Iñurrieta
A fin de cuentos, 2022
ISBN: 978-84-120914-9-6
36 orrialde
Album ilustratua

Migrazioak gure gizartean duen ikusgarritasunaz hausnartzen laguntzen du album ilustratu honek. Elkarrekin gurutzatuko diren bi istorio kontatzen zaizkigu, aldi berean. Bi istorioetako protagonistak berdinak dira, eta ekintza berdina egiten dute: alaba amarekin barkuan doa. Familia bat gurutze-ontzian doa, opor-bidaian. Ez dute ezer faltan, oparotasunean bizi dira. Justu kontrako egoeran, beste familia ihesean doa, euren etxean ez daude seguru, jazarriak izaten ari dira, eta txalupa batera igo dira itsaso zabala (Mediterranea?) zeharkatzeko asmotan. Egoera antagonista da, bizitza paraleloak dituzte, eta ez dute elkarren berri. Narrazioaren giltza nagusia grafismoa da. Tinta gorriz margotuta daude bidaian doazenak, eta tinta urdinez ihesean doazenak. Baina zailtasun bat erantsi diote, hausnarketa gako ere badena: urdinezko irudiak gorrien azpian daude, eta lupa berezia (liburuak dakar) erabili ezean, irudi urdinak ikusezinak dira irakurlearentzat. Liburuaren azken ezaugarria ere ez da nolana hikoia. Ihesean doan haurra da narratzailea, Hanielle izenekoa, eta bere esanak bidaian doazen familiaren irudien parez pare egonik, bizipenen kontrastea are nabarmenagoa egiten da.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Zer da ikusten ez duzuna ikustea? Galdera honetatik abiatuta, solasaldi filosofiko bat egin dezakegu, gai honen inguruan idazten duten idazleen pasarteak irakurri, filosofikoki ikusten ez denaz hitz egitearen inguruan mundu bat ireki dezakegu. Betaurrekoen metaforaz ere baliatu gaitzake gure solasaldian. Gure betaurreko fantastikoak sortu genitzake, betaurreko bakoitzak zer ikusten duen azalduz, idatziz, aurkeztuz.

Oharrak:



ATZAMARRA


Idazlea: Asun Agiriano
Ilustratzailea: Marina García
Elkar, 2022
ISBN: 978-84-13602-22-6
44 orrialde
Album ilustratua

Memoria autobiografikoari buruz hitz egiten digu album honek. Narratzaile ere baden idazleak haurtzarora eramaten gaitu, gertakari latz bat bizi izan zueneko garaietara. Izan ere, hiru urteko haurra zelarik, errepidea gurutzatzen hasi omen zen kotxe bat bazetorrela ohartu gabe, amona ere bidera atera omen zen hura babestera, eta biak kotxe azpian bukatu. Amona bertan hil zen, eta narratzaileak, zaurien ondorioz, eskuko hatz lodia galdu omen zuen. Etxeratu zen bi huts zituela, amona eta atzamarra. Ezin osatuzkoak esaten digu kontakizunaren korolario gisa, ez bada jolasaren eta ipuinaren bitartez. Ez da arinkeriak botatako nahikizun hutsala literaturaren aldeko aldarrikapen hau, baizik eta metodo terapeutiko gisa aldarrikatzen den ekintza, gertakariari eta memoriari aterabide osasuntsua emateko moduan. Honegatik liburu hau oroigarri bat da, karga sentimental askokoa, muinean amonari egindako omenaldi eta aitortza dituen.

Egitura narratiboan oreka handia dago letren eta irudien artean. Testua biluzia da, eskematikoa, eta ilustrazioek betebeharrasko dituzte, hala nola aurpegi argazkiekin eta egunkariko albistearekin egiantzekotasuna ezartzen, baserritar giroa eta antigoaleko estetikarekin garai jakin batean kokatzen laguntzen, eta animalia zein landareekin marko sinbolikoa eraikitzen.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Egiaren eta gezurraren artean... ipuina nahiago. Benetakoaren eta asmatutakoaren artean... jolasa. Kontakizunean esaten diren esaldi bi hauek abiapuntu hartuta, animatuko ginatke idazketa tailer bat egitera asmatutakotik edo egi batetik ipuin edo jolas bat idaztera? Taldeka irudikatu ditzakegu, egunkarian albiste bila ibili eta hortik ideia hartuta garatu.

Oharrak:




MEMET

Idazlea: Isabella Cieli
Ilustratzailea: Noemie Marsily
Itzultzailea: Uxoá Iñurrieta
A Fin de Cuentos, 2022
ISBN: 978-84-124908-6-2
104 orrialde
Komikia

Komiki sozial bat topatuko duzu bertan, haurren munduari buruzko begirada zintzoa egin nahi duena. Kanpin batean garatzen da kontakizuna, hiru gau hartzen dituen aldi batez. Partzelarik gabeko eremua da, nahiko basatia. Basoa bertan dago eta ez oso urruti erreka. Batik bat haurrak agertzen dira, eta helduak funtzio subsidiarioa dute, figurante ez direnean. Kontakizuna hain da apala, protagonista hitza ere gehiegizkoa dela hiru aktore nagusiak izendatzeko. Bi joan-etorrikoak dira, bestea bertakoa. Haurren ekintza txikiak ikusten ditugu, denbora-pasan. Zertzelada xumeak, ezer gertatuko ez balitz bezala. Mutiko holandarra astakilo samarra da, besteei jarraitzea gustatzen zaien horietakoa. Neskato ingelesak markatzen du istorioaren denbora. Kuxkuxean ariko da, norengana inguratu aztertzen. Ileordea darama, ez dakigu zergatik. Mutiko euskalduna da bertakoa. Amarekin bizi da eta amak ez dio jaramonik egiten. Litxarreriak janez eta barne amorrua islatzen duten bihurrikeriak eginez igarotzen ditu egunak. Garrantzitsuena fokuz kanpo gertatzen dela (gertatzen ari dela) iradokitzen du obra honek.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Udako oporretan zenbat gauza gertatzen diren. Lagun berriak, abenturak. Zelan gustatuko litzaidake fikzio lan bat eginik gure oporrak kontatzea? Irudien bitartez, argazkien bitartez, collage teknikaren bitartez... Probatu dezakegu baita ere udako istorio bat kontatzera binaka edo launaka eta entzuten dutenek asmatu behar dute ia egia den ala ez besteak kontatzen duena.

Oharrak:




MUNDUARI BIRA EMAN ZION ONTZIA

Idazlea: Joseba Sarrionandia
Ilustratzailea: Arístides Hernández Guerrero
“Ares”
Pamiela, 2022
ISBN: 978-84-9172-283-0
168 orrialde
Kronika

Magallanes-Elkano itsasgizonek gidatutako munduaren zirkunbalazioaren ezohiko kronika da liburu hau. Bilobak amamari eskatzen dio kontatzea, behingoz, ipuinak ez diren kontakizunak, eta historiako irakaslea denez, erregutzen dio kontatzeko benetako historia, hatxeduna. Amamak ordea abisua ematen dio historia kontatzean, istorioak tartekatzen direla, nahita ala nahi gabe. Dena dela, tratua egiten dute, eta elkarrizketa moduan, pausoz pauso, amama duela bost mende munduari emandako lehen itsas bira nolatsu gertatu zen kontatzen hasten zaio. Poliki poliki, jende xehearengan ahalik eta arreta gehiena jarriz, eta ekintzen atzean dauden grinak agerian uzteko jarrerarekin, bidaia luze hura hasi eta bukatu azaltzen dio. Hamabost ataletan eraikitako kronika, ilustrazio esanguratsuekin osatuta dago, hainbatetan XX. mendeko irudi ikonikoak txertaturik dituztenak, irakurleari laguntzeko begirada ezartzen liburuaren asmo kritikoan, konkistatzaileen kronika ofizialetatik aparte, indigenismoaren eta anti-kolonialismoaren arrastoan.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Kapitulu laburretan idatzita dagoenez, eta heldua eta gaztearen arteko elkarrizketa fresko-freskoaren egiturarekin, egunero bat irakurtzeko aukera ematen du. Izan ere, afektuzko elkarrizketa horretan kontatzen direnak sakonak izateaz gain, kontzeptu ezezagunak azaltzen dituzte. Kontzeptu horiei arreta jartzeko baliatu dezakegu. Bigarren aukera bat ere badugu: Baliteke liburuan zehar azaltzen diren pertsonaiak eta horien zenbait kontu ezagunak izatea. Liburuak proposatzen digun irakurketak, gurean nagusi diren diskurtsoei errepaso ematen die, bestelako ezinbesteko ertzak aurkeztuz. Gazteekin horretaz hitz egiteko aukera ere baliatu dezakegu.

Oharrak:




KLAK

Egilea: Maite Gurrutxaga
Elkar, 2022
ISBN: 978-84-1360-146-5
36 orrialde
Album ilustratu mutua

Hiru kolore primarioekin lanean, beltzetik zurirainoko tonalitateekin lagundua, orrialdeak erabat betetzen dira ilustrazioekin. Irudi angelu zuzenek eraikitzen dituzte eszenatokiak, forma borobilaren han-hemenkako laguntzarekin, soilik bizidunenak balira bezala geometria irregularretako formak. Protagonista etxetik irtetea hasten da akzioa, ñabardurak ñabardura aurrera jotze frenetiko baten gisan deskriba daitekeena, jendetzaren zalapartaren eta hiriko abarrotsaren artean. Ordulariek markatzen dute erritmoa, zehazki 7:25etan jaikitzen denetik, 8etan tren hartzen duen arte. Segidako ilustrazioek ihesaldia mendialdean kokatzen dute, natura basatia den lurraldeetan, harik eta orrialdearen eskuineko ertzerantz iritsi eta begiraleku natural batean pausatzen den arte, ingurua ederresten.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Album honek tituluaren soilik ditu hizkiak. Hortik hasi gaitzke. Onomatopeia horrek sorrarazten dizkigun ideiak taldean plazaratuz. KLAK. Zer da soinu hori? Zer izan daiteke? Abiapuntu ederra izan daiteke, ondoren, liburuko protagonista jarraitzeko. Irakurri ondoren, berriro bueltatu gaitzke KLAK soinuaren pentsatzera. Eta galdera berriro bota ea zer aldatu den konprobatzeko. Kasurako, galdetu dezakegu, zuen bizitzako zein pasarteri jarriko zenioke KLAK izenburua?

Oharrak:



15 ARRAZOI ISILIK EGOTEKO; 15 ARRAZOI OIHU EGITEKO

Idazlea: Harkaitz Cano
Ilustratzailea: Lorena Martinez
Zart, 2022
ISBN: 978-84-09-43155-7
Liburu-objektua

Literatur proposamen ezohiko baten aurrean gaude. Liburuen eite formalak (orrialdeak, zenbaketa, etab.) gordetzen du. Bi azalak bi hasiera dira, liburuaren erdian elkarrekin topatzen dutenak. Simetria du ardatz, beraz, eta izenburu bikoitza da jolas honen lehen harria. Kartoiako azala, gardenkiekin egindako ilustrazio jolasak, forma eta egitura soileko irudiak, tinta kolore hainbatetan emanak, guzti hauek soineko dira. Hauek guzti hauek irakurleari irakur-modua ezartzen laguntzen diote, muina idatziz ematen delako, letra mekanografiatuetan, zenbakiz ordenatuta, ordena grafikoan: lehenik baieztapena “I. Ez daukadalako deus esateko”, segidan gardenkia hainbat formarekin, koloretan, argi iragazkorra, atzean ilustrazioa. Zikloa hamabost aldiz osatzen da, alde bakoitzean. Ilustrazioak testuak esandakoak eragindako erreakzioak dira, barne komunikazio moduko bat.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: “Zer demontre dago aulkien azpian?” (Pamiela, 2016) liburutik datorren olerki batetik sortu dute liburu-objektu hau. Canoren eta Martinezen aurretiko lana ezagutzea ondo legoke. Lana irakurri eta gero isilik egoteko eta oihu egiteko gure 15 arrazoi sortu ditzakegu eta ahoz goran taldean konpartitu.

Oharrak:




AU DÉBUT

Idazlea: Ramona Badescu
Ilustratzailea: Julia Spiers
Des Grandes Personnes, 2022
ISBN 978-2-36193-673-0
82 orrialde
Album ilustratua

Denboraren joanaren gaia du abiapuntu album ilustratu honek. Protagonista nagusia 2020an amona den andre bat da, zeinaren biografian atzera hirurogeita zortzi urte egingo dugun, 1952ko bere haurtzarora iritsi arte. Atzerako bide honetan bere familiako kideak ditu alboan, lorategian ia beti, etxe barruan noizbehinka. Lorategian ez kasualitatez, baizik eta kontakizun honen ardatz isila bertan dagoen mizpirondoa delako, hura jaio baitzen bertan 1952an, hark eskaini baitzuen abaroa han bildutakoei, hark eman fruitu gozoa. Irakurketan aurrera egitean denboran atzera egiten dugun bezala, liburuaren amaierara iristean kontrarako norabidean irakurtzeko gogoia pizten da, pertsonaia hauen istorioa ongi ulertu nahi izatekotan egin beharreko ariketa baita hau. Bi norabideetan irakur daitekeen liburu baita, horregatik ditu bi azal. Denboraren kontzientzia zehaztasunez markatzeko, orrialdeen goialdean data jartzen du. Orrialde zenbaiten oinetan poetikotasun askoko testua dago, frantsesez. Baina istorioa jarraitzeko ez da ezinbestekoa frantsesez jakitea, ilustrazioei erreparatzearekin aski izan daiteke.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Atzez aurre irakurri daitekeen liburu honek kontaktzen duen zuhaitz eta pertsonen arteko joan etorriak bultzatuta, gure eskolako arbola baten inguruan antzeko ariketa bat egiten baldin badugu? Istorio berri bat sortu dezakegu? Autorearen liburu gehiago ezagutu nahi al duzue?

Oharrak:




LIMA

Idazlea: Miren Gorrotxategi
Elkar, 2022
ISBN: 978-84-1360-169-4
164 orrialde
Eleberria

Eleberri honetan, protagonistak bere benetako jatorria eta nortasuna zeintzuk diren ikertu beharko du. Lili Maguregi “Lima” atsekabeturik aurkituko dugu, ikasturte hasieran, DBH IA gelan, arrazoi argirik ez badu ere. Arreta osoa eskatuko dioten ezusteko handiak gertatzen hasiko zaizkio ordea. Limak hainbeste maite duen Paulita, euren tutorea, bat-batean gaixotzearekin batera Maia izeneko irakasle misterioitsu batek hartuko du haren lekua. Gainera, udara osoan bere maitasun platonikoa izan den Markos institutuan hasiko da, eta bere gelan gainera. Eta dena hankaz gora jar dadin, Maiak erabat nahasiko duen zerbait esango dio: bere gurasoek mendian topatu omen zuten, jaioberria zela, eta orain arte ezkutatu egin omen diote dena. Gurasoekin haserre, Maiaren izaera susmagarriak erne jarrita, Markosek beragana gerturatzeko ematen dituen pausoekin aztoratuta, Paulita irakaslearekin ezin harremanetan jarri... Narrazio irakurterraza da, hogeita bederatzi ataletan banatuta dagoena eta elkarrizketa ugari dituena. Bere ezaugarri formalak ikusita, izan, ipuin luze bat dela esan liteke.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Solasaldia egiteko lan aproposa da. Limak inguratzen duen guztia, mitologia ez den gainerako guztia, ezaguna zaie gaztetxoei. Horregatik, beraien gauzen inguruan hitz egiteko aukera piztu dezake Limari gertatzen zaizkionak taldean konpartitzean.

Oharrak:




EKOLINE

Gidoilaria: Stephen Desberg
Ilustratzailea: Ana Teresa Martinez
Itzultzailea: Miel Anjel Elustondo
Harriet Ediciones, 2022
ISBN: 978-84-125149-1-9
72 orrialde
Komikia

Iniziazio abentura paristarra duen komikia da. Protagonista Ekoline txakurra da, baserrian jaiotakoa. Zaindari-zakur bikain baten alaba, txikitatik arterako eta adiskidetasunerako joera handia erakusten du, aitaren asmoen aurka. Istorioaren kontakizuna in media res hasten da, hain justu gertakarien korapilo nagusia estutzen denean. Protagonista orduan atzera begira batean hasten da kontaktzen, maiz errepikatuaz honako lelo hau: “Negarra ari du nire bihotzean, nola ari baitu euria hiriaren gainean”. Bere haurtzaro zorionsua lapurreta baten erruz eten zen, aitzak Ekoline etxaldetik bota egin baitzuen, zorrotzegi jokatuta, akaso. Noraezean Parisera iritsi zen, hain juxtu Munduko erakusketa azokaren lehen edizioa hastear zela, Eiffel dorrea bera eraikitzen ari zirela. Ekoline bertako bohemiorekin adiskidetu zen, bereziki Musette Moulin Rougeko katu kantariarekin, eta Raul uso bon vivantarekin. Flash back luze honek kontakizunaren hiru laurdenak hartzen ditu. Korapilora berriz heltzean, antagonisten arteko azken borroka gertatzen da eta amaiera zorionsura iristen dira Ekoline eta bere adiskide zein senideak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Komikigintzan sartzeko aukera bitxia izan daiteke, gelako partaideek komiki bat ekarri eta aurkeztuz, komiki desberdinen erakusleioa sortuz, islatuta geratu dadin komikigintza oso-oso zabala dela eta irakurlearentzako aukera ugari eskaintzen duela. Eskolara komikigile bat gonbidatzea ere ondo legoke.

Oharrak:



ZERRIA

Idazlea: Patxi Zubizarreta
Ilustratzailea: Antton Olariaga
Erein, 2022
ISBN: 978-84-9109-788-4
88 orrialde
Eleberria

Ikerketa eleberri honetan protagonistak iraganeko gertakarien arrastoei jarraitzen die, memoria historiko herritarra deitu ahal zaion horri bide emanaz. Bereket deitzen den glaziologoak izotzetan harrapatutako hilotz batzuen berri izaten du, Suitzako Tsanfleuron glaziarrean. Bertaratu eta aldean hiru objektu zeramatzatela ikusten dute: sakelako erlojua, kristal berdeko botila, eta zapietan bildutako liburuxka. Jakin minaren harrak kitzikaturik, Bereket liburua arakutzen hasten da eta ohartzen da euskaraz dagoela, Duvoisinek itzultitako Bibliaren ale bat dela, 1859ko edizioa, eta hainbat hitz eta letra azpimarratuta dituela, mezu bat osatuz. Hartara, bere adiskide euskaldun bati laguntza eskatu, eta biak ala biak ikerketa abiatuko dute, Zuberoko Harane herrira eramango dituen. Narrazioaren hari nagusia hau izanik, gizarteak baztertzan dituen pertsonengan jartzen du arreta, eta, gertakariaren nondik norakoak eskaturik, animaliei egindako hainbat ankerkeriaren berri ematen du. Liburu honek Lizardi saria irabazi zuen, 2021eko edizioan.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Hiru ataletan banatuta dagoela aprobetxatu dezakegu, guk ere irakurketa hiru zatitan egiteko. Honela, batetik bestera intriga piztuta utziko dugu. Liburuak josten dituen hariak sakonak dira eta heldu bitartekariak, kasu askotan behintzat, presentzia handia izan beharko du irakurketan. Zergatik ez ozen irakurri beraiantzat, beharrezkoak diren geldiuneak egiten ulermenari pausak eskaintzeko? Noski, hasi aurretik, kokapen txiki bat eta atala bukatzean, laburpen moduko bat elkarrekin egitea (ez idatziz, ez azterketa egiteko baliatuz, noski) komeni da, “zer geratu da hemen?” edo “gustatu zaizue?” bezalako galdera irekiekin.

Oharrak:



ERRADIKALAK

Egileak: Beatriz Egizabal Ollokiegi, Ane Labaka Mayoz
EHAZE-Susa, 2022
ISBN: 978-84-17051-89-1
152 orrialde
Antzerkia

Bi antzerki obraren gidioiek osatzen dute liburu honen gorputza. Dagoeneko taularatutako obrak dira, eta esperientzia honek sortutako hausnarketak gehitu dizkiote. Guztia osatzeko, gainera, EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale elkarteak hitzaurre mamitsu bat eskaintzen du, eta Jule Goikoetxea Mentxaka filosofo politiko eta irakasleak beste bat.

Lehen antzezlanak, "Erradikalak gara", 2017an estreinatu zen. Euskaldun izateak dakartzan estereotipoak astintzen abiatzen dute diskurtsoa. Umorezko gag askorekin, bertsoa (Ane) eta hizketa (Bea) tartekatzen dituena. Saioaren erditik aurrera erdigunera ekartzen dute begirada feminista, eta gaiaren izaerak berak kritikak eta aldarrikapenak umorez mingotsagoak bihurtzen dituzte. Bigarren antzezlanak "Erradikalak ginen" deitzen da eta 2019an estreinatu zuten. Hasieratik proposatzen dute emakume izateak dakartzan gain-nekeak, eta aurrera egin ahala ikuspuntu ezkertiarra goa eransten dute, kapitalismoaren azakeriak kritikatzeko edota mugimendu sozialak aipatzen, diskurtso feminista amaieraraino ardatz hartuta.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburu honek aukera asko eman ditzake zenbait lekutatik sartu gaitezkeelako. Alde batetik, pasarte-eszena bat aukeratu, eta berau aurkeztu dezake irakasleak, ozen irakurri eta esaten edota sorrarazten digunaz galdetuz, elkarrekin hausnartu dezagun. Une hori baliatu dezakegu liburua bera osorik irakurri dezaten amu bezala. Bestalde, kapitulu-pasarte-eszena bakoitza taldeko pertsona bati edo biri eman diezaiokegu, eta bikote bakoitzak egokitu zaien zatiak iradoki diena gainontzekoekin konpartitzeko dinamika zabaldu dezakegu.

Oharrak:



NI EZ NAIZ MIKEL LABOA

Idazleak: Unai Iturriaga eta Harkaitz Cano
Ilustratzailea: Joseba Larratxe "Josevisky"
Elkar, 2022
ISBN: 978-84-1360-226-4
128 orrialde
Komikia

Euskal kantari ospetsuaren biografia literarioa eskaintzen digu komiki honek. Laboaren gaztarotik abiatuta, kronologikoki egiten du aurrera, hainbeste maite zituen kantak benetako bizipenekin uztarturik. Esaterako, lehen orrialdeak Atahualpa Yupanquiren "Piedra y camino" kantatuz Ameriketako lur idorretatik doan Mikel gazte baten pasadizoa kontatzen zaigu, gitarra aldean, asto gainean, badoana. Gitarraren lapurreta erdigunean dela zenbait abentura bizitzen ditu, eta plano aldaketa egiten da kontakizuna amaitzean, Mikel eta Marisol Bastida bikotea etzanik agertzen direlarik, Mikelek esaten duela "Eta, gutxi gorabehera, halaxe eskuratu nuen gitarra, Marisol". Egiantzeko erretratuak marraztu ditu Josevisky-k, argi-itzalak erabiltzen ditu bolumena adierazteko, eta erraz antzematen da liburuan hain ugari diren euskal pertsonaiak, egileen cameoak barne. Ilustrazioak kolore arrez esteanpatuta daude, gainjartzen zaizkienak zuri-hori-gorri-urdinak energia bereziko elementuak direnean.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Mikel Laboaren fikziozko komiki abentura honetan murgiltzeko bitartekaritza lan bat egitea komenigarria izango litzateke. Mikel Laboa nor zen aurretik ezagutzea: bere biografia, bere abestiak...

Oharrak:




TAROKA: ERRIMA JOKO BERTSOTERIKOA

Egileak: Txakur Gorria, Atopia, Trikimailu
jolasak, Talaioseko kideak
Txakur Gorria, 2022
ISBN: 978-84-09-43048-2
Jolas kartak

Kutxa baten barruan datoz eskuliburua eta 82 kartako sorta bat. Denak gertatzen dira beharrezko jolasean aritzeko. Karta sorta antolatuta dago tarot deitzen den jolas esoterikoaren arabera, arkano nagusiekin eta arkano txikiekin. Liburuxkan ematen dira igarkizun-jolas honen azalpenak, komenigarria bada ere, inork serioan aritu nahiko balu, beste bideetatik jardun hauetan sakontzea. Ez da hau proposatzen den jolas bakarra. Bertso-jolasean aritzeko proposamena dator ere, kartak narrazio abiapuntu izanik, taldeka zein bakarka jarraibidea emateko bertsotan. Hiru modutan jokatzeko proposatzen da, bakoitzak bere arau propioekin: modu narratiboan, modu kooperatiboan eta modu konpetitiboan, zailtasun maila desberdinetan. Agerikoa da karta hauek ipuin eta antzekoen sorkuntzarako baliabide egokiak izan daitezkeela, egileek beraiek iradokitzen duten bezala.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Jolasera jolastu, proposatzen duten forma desberdinetan. Jolasa sortu dutenak eskolara gonbidatu ditzakegu, jolas bat zelan asmatzen den azaldu diezaguten.

Oharrak:




JOÃO

Idazlea: Paloma González Rubio
Itzultzailea: Aitor Arana
Ibaizabal, 2022
ISBN: 978-84-1370-055-7
192 orrialde
Eleberria

Kronika baten moduan idatzitako eleberria da. Miguel izeneko gazte batek betiko markatu zioten bizipen batzuk kontatzen dizkigu, João erdigunean jarrita. Izan ere Miguel amarekin eta arrebarekin itsas bazterreko herri batean bizi den bezala, João barku batean bizi da bere amarekin, hara eta hona mundu guztian zehar. Zorigaitzoko gertakari baten harira izaten duten topaketa bi mutilei ezagutzen ez duten mundu paralelo baterako aurkezpena da; itsastarrarentzat lehorreko mundua ezagutzeko aukera, bere fribolitate, pantaila, eta kontsumo zama guztiarekin; lehortarrarentzat naturaren eta gertakarien aurrean babeslekurik apenas ez duen mundua, txoriena gogorarazten diona. Truke hartatik batak itsasoarekiko lotura sendotzen du, besteak bere bizimodua lastarik gabe nora eraiki pentsatzen jartzen. Eleberri honek bizitzari ganoraz aurre egiteko beharrezkoak ditugun baloreak bilatzeko esaten digu. Blokeen aurrejartze honetan bi mutikoez gain, euren amak daude, mundu bakoitzaren babesle suhar gisara jokatzeko, eta, talka honetatik kalteturik aterako den Ines, Miguelen arreba.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Ur sakonetara garamatza irakurketak. Horregatik lagungarria deritzogu irakurketa egin aurretik laburpentxo bat egitea, testuinguruan kokatuz eta pertsonaiak aurkeztuz. Ondoren, liburuak gordetzen duen korapiloari eman dakiok aukera: egiten duguna eta egin nahiko genukeenaren artean dagoen distantzia sentitzen duten ala ez galderarik potoloena litzateke. Agian apurka-apurka heldu gaitezke, lehenengo pertsonaiak nola ikusi ditugun galdetuz.

Oharrak:




OSABA PETROS ETA GOLDBACHEN AIERUA

Idazlea: Apostolos Doxiadis
Itzultzaileak: Ane Oliveros eta Gaizka Zabarte
Denonartean, 2022
ISBN: 978-84-17940-78-2
190 orrialde
Eleberria

Bizitzaren ezinbesteko erabakiei buruzko galderak eragiten ditu eleberriak. Istorioaren ardatza narratzailearen osaba Petros da, matematikari eszentrikoa, kontenplaziozko bizitzan dagoen agurea, harrigarriki bere anaien gutxiespena jasotzen duena. Protagonista hazten joan ahala osabaren biografia arakutzen hasiko da, honek matematikaren mundu irits-gaitzera eramango du (eta harekin gu), eta hark bizitzan garrantzitsuak diren erabakiak hartzeko uneetara. Testua narrazioa bezainbat da zorrotza, idazkera kultua erabiltzen du, eta sarri matematikaren lege eta aieruak agertzen dira, Goldbachena tarteko: “Bi baino handiagoa den zenbaki bikoiti oro bi zenbaki lehenen batura da”. Zeina, berrehun eta berrogeita hamar urte geroago, matematikariek frogatzeke duten. Eta hau dena aitzakia ederra da benetako hausnarketarako: Eskuragarriak diren helburuak ezartzea da bizitzaren sekretua? Ez al da ederragoa ezinezkoa dirudiena lortzen amestea?

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Liburu hau matematikako irakasleei zuzendutako eskaintza izan daitekeenez... ausartuko gara hurrengoa proposatzera: zergatik ez liburu honen irakurketa eraman liburuak berak goraiatzeko duen matematikaren arlora? Arlo desberdinen arteko zubiak goraiatzeko liburu da. Matematikaz ezertxo ere jakin ez arren, disfrutatu daiteke. Baina norbaitek matematikari loturiko kontzeptuekin laguntzen baldin bagaitu, hobe! Euskarara ekarri duten biak (Oliveros eta Zabarte) hain zuzen ere diziplinartekotasun horren adierazle dira.

Oharrak:



VIRIDITAS: LANDAREEN MUNDU ZORAGARRIA IKUSARAZI ZIGUTEN EMAKUMEAK

Idazlea: Aina S. Erice
Ilustratzailea: Amanda Mijangos
Itzultzailea: Uxoá Iñurrieta
A fin de cuentos, 2022
ISBN: 978-84-125805-0-1
88 orrialde
Ezagutza liburu ilustratuta

Botanikan nor izan diren hamasei emakumeren biografia hautatua dakar liburu honek, hainbat landare interesgarriren azalpenekin batera. Emakume hauek botanikari egindako ekarpenek garaian garaiko zientzialari prestueneren artean zeudela erakusten dute, baina, gerora itzalean gelditu direla, emakume izate hutsagatik gehienetan. Formatuari dagokionez, ezker eskuin osatzen diren orri-bikoetan alderik aldeko ilustrazio indartsuak ageri dira, testua propio utzitako zuriunetan itsatsita agertzen delarik. Liburu sei ataletan banatuta dago, aurkibide bat du, aitzin-solas eta atze-solas bana, eta jarduera proposameneren azken atal bat.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Landareak eta emakumeak uztartzen dituen liburu honetatik abiatuz, herbario bat egin dezakegu, basora irten, hostoak hartu, loreak pilatu eta gure herbario propioa egin, koaderno apaindu, diseinua pentsatu, loreak sikatu... Instagramer asko daude lan hau egiten. Bidai bat egin genezake landareen mundutik, eta gure eskolaren landare kopurua ikusi, nortzuk zaintzen dituzten, non dauden, gehiago izatea gustatuko litzaiguke?

Oharrak:



DODOA (+6)

Jabier Muguruza, Iñigo Astiz eta
Mikel Azpiroz
EITB
Podcasta

<https://www.eitb.eus/eitbpodkast/aisia-fikzioa/dodoa/>

2021ean Iñigo Astiz idazle eta kazetariak eta Jabier Muguruza musikariak sorturiko zenbait abestiren osagarri gisa abiatu zen 2022ko abenduan euskara, literatura eta musika uztartzen dituen podcast labur hau, EITBPodkast atariaren baitan. Bikoteari Mikel Azpiroz eta Nieves Arrilla batu zaizkio, soinu lanetan eta kantuetan laguntzeko. Hurrek, kantuen eta entzumenaren bidez, irudimena lantzea da podcast honen helburu nagusia, musika zaletasuna piztearekin batera. 5-10 minutuko sei ataletan entzuleek zenbait animalia, piztia eta mamu ezagutuko dituzte, besteak beste, eta, bidean, Dodoaren dudak argitzen joango dira.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Laburrak eta aldi berean oso zabalak diren ahots kapitulu hauek banan-bana jarri ditzakegu hurrekin batera entzuteko. Entzuteko. Irudirik gabeko eta aldi berean irudiez betetako atalak laburrak baina zabal-zabalak direnez, hainbat aldiz entzun daiteke bakoitza. Gure proposamena astero bat hainbat aldiz entzutea da. Eta saio bakoitzean azaltzen diren elementuei tira eginez, hiztegia, kontzeptuak, ideiak, hausnartzeko galderak... erreskatatu eta hurrekin sortu daitezkeen askotariko elkarrizketei bide ematea. Garrantzitsuena narrazioez gozatzea da. Beti bezala, garrantzitsua da aurkezpena: DODOA ez da edozein kontzeptu eta aurretik jarri behar ditugu hurrak horretan pentsatzen. Kapitulu bakoitzean gauza bera gertatu daiteke. Nola ez, kantuez bete-bete gozatzeko helburuaz, dantza egin daiteke!

Oharrak:



GONAGORRI (+12 / helduak)

Galtzagorri elkarte
Podcasta

<https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu/gonagorri-podcast-a>

Galtzagorri elkarteak 2021eko maiatzean abiatu zuen bere soinu-abentura. Gonagorri podcastak 8 atal berri izaten ditu urtero eta horietako bakoitzak Haur eta Gazte Literaturarekin harremana duen gai ezberdin bat du hizpide. Honakoak dira besteak beste honezkero Gonagorri landu dituen gaietako batzuk: hitzik gabeko liburuak, gazte literatura, fikzio digitalak, sexua gazte literaturan, Gerraren inguruko haur eta gazte literatura, album ilustratuak, haur eta gazte liburutegiak... Atal guztiek egitura bera jarraitzen dute: Miriam Luki kazetariak gidatutako elkarrizketa edo erreportaje labur bat, kontaketa bat eta, amaitzeko, Lore Agirrezabalek egindako liburu-gomendioak. Atal bakoitzak, gainera, Concetta Provanzak berariaz sorturiko ilustrazio bat du lagungarri. Galtzagorriko webgunean entzungai egoteaz gain, Spotify, Ivoox eta Baleafunk plataformetan ere topatu daiteke.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Erabilera asko izan ditzakeen baliabidea da. Batetik, irasleen trebakuntzarako baliagarria da atal bakoitzak haur eta gazte literaturaren inguruko gai bat aletzen duelako kronika edo elkarrizketaren bidez eta gai horri lotutako liburu gomendioak ere biltzen dituelako. Bestetik, atal bakoitzak kontaketa saio bat biltzen duenez, horiek erabil daitezke gelan bertan ikasleen gozamenerako. Kontaketa hauek gainera euskal haur eta gazte literaturako sortzaileen ahotsak ezagutzera emateko balio izango dute: batzuetan idazle, ilustratzaile, itzultzaileak irakurtzen dituzte euren testuak, eta besteetan ipuin kontalariak egiten dituzte kontaketa.

Oharrak:




EMMA BY JUTTA BAUER (+3)

Ilustratzailea: Jutta Bauer
Garatzailea: Carlsen Verlag, 2012
Apple Store (iOS)

Umorez eta egunerokotasunez beteriko aplikazio hau, ilustratzaile eta idazle aleman ezagunak sortutako “Emma” bildumaren lehendabiziko egokitzapen digitala da. Jolasak, toki ezberdinetan kokatutako sei eszenaren bitartez, irakurle edo erabiltzaile txikien identifikazioa, ikusmen- zein ukimen-elkarrekintza eta parte-hartzea bilatzen ditu. Aplikazioa ingelesez eta alemanez soilik aurkitzea ez da oztopoa izango bere erabilerarako. Menuan ageri diren sinboloek, gainera, irakurketa autonomia ahalbidetzen dute.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Literatura digitala ezagutzen hasteko adibidea da. Bilduma analogikoa ezagutu ondoren edota aurretik erabili daiteke. Behatza erabiliz, Emma izeneko hartz txikia egunerokotasuneko momentu ezberdinetan non dagoen, zer gertatzen zaion eta atal bakoitzaren muina zein den aurkituko dugu.

Oharrak:




PETTING ZOO (+4)

Ilustratzailea: Christoph Niemann
Garatzailea: Fox & Sheep, 2013
Apple Store (iOS) eta Google Play (Android)

Christoph Niemann ilustratzaile ezagunak sorturiko irudiz betetako liburu interaktiboa da, eskuz egindako ilustrazioak, ironiaz beteriko umorea eta teknologia uztartzen dituenak. Behatza lau puntu kardinaletara mugituz, erabiltzailea 21 animalia ezberdinekin hartu-emanetan arituko da eta horiek dituzten ezusteko erreakzioak ikusi eta biziko ditu. Atzealde plano edo zenbait argazki errealean gainean agertuko dira Niemannen trazu beltz, lodi, azkar eta sinpleez egindako animaliak. Elkarrengandik independenteak diren 21 istorio, haurrari jolastea, barre egitea eta narrazio interaktiboaren munduan murgiltzea ahalbidetuko diotenak.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Literatura digitala ezagutzen hasteko adibidea da. Animalia bakoitzaren gainean behatza jarriz eta mugituz, ezusteko eszena surrealistikak topatuko ditugu. Gertatzen dena deskribatzea eta hori abiapuntu hartuta eszena horien jarraipenak asmatzea izan daiteke aukeretako bat.

Oharrak:



THE EMPTY KINGDOM (+8)

Egilea: Daniel Merlin Goodbrey
Garatzailea: E-merl.com, 2014

<https://www.kongregate.com/games/stillmerlin/the-empty-kingdom>


Jolas-komiki digitala da “The empty kingdom”, Daniel Merlin Goodbreyek esperimentu gisa sorturikoa. Hasiera batean zaila da jakitea jolas kontenplatio hutsa den, argitu beharreko misterio bat duen istorioa den, komikia den edo horien guztien arteko konbinazioa.

Errege bat erreinu huts batean. Hori da sortzailearen lehenengo proposamena amaitua dirudien jolasean. Erregea, heroia edo gerlaria izatetik urrun, paseari soila izango da jolas honetan.

Erabiltzailearen helburua amaierara iristea bada, jolasa laburra izango da. Ez ordea irakurleak irudiak behatzea eta soinuak entzutea erabakitzen badu. Minimalismo grafikoa, isiltasuna, ekintza eza eta ezerezean egon daitekeen osotasuna miatzeko gonbitea aukera bihur daitezke, irakurlea horietara irekita egonez gero.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: haur eta gazteei jolasaren amaierara iristea erraza suertatuko zaien arren, kontenplaziozko eta entzumenezko ariketa egitea izango da helburu nagusia eta guk bide horretan lagundu dezakegu. Erritmoa mantsotuz, ikus- zein soinu-elementu mugagabeak hautemango dira hasiera batean hutsala dirudien istorioan.

Oharrak:



IRABAZI ARTE: IRAGANEKO MAMUA (+12)

Gidoilaria: Nerea Loiola
Ilustratzailea: Aitziber Alonso
EITBlab eta Alai, 2022
Apple Store (iOS) eta Google Play (Android)

“Irabazi Arte!” telesailaren unibertsoan girotutako komiki digitala da. Ezustean “Zazpi puntako izarrak” izeneko torneo ospetsuan parte hartzeko gonbidapena jasotzen dute. Aukera aparta dute aukeran, eta gainera Irene Paredes jokalaria mitikoa torneoaren egongo dela jakiten dute. Albistea jakitean Larra entrenatzaileak bera ez doala esan du, eta haren ordean Areneren familia joango da. Klubak merke-zurrean topatutako hotel batean aterpetzen dira, eta beste taldeetako neskak topatzen dituzte. Euretako batzuk gauean egingo den festa batera gonbidatzen dituzte, Hip-flower tabernan. Biharamunean bestondo ikaragarria dute gehienek eta, okerrena, Olatzen Instagramen zein Tik-Tokean festako bideo “desegokiak” agertu dira. Giroa erabat txartzen da eta torneoaren gaitzen hasten dute. Korapiloa nolabait askatzea lortzen dute, zorionez, eta Larraren bat-bateko agerpenak dinamika irauli eta finaleko pasea irabaztea lortzen dute.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: Telesailean oinarrituriko komiki digital hau pantailan irakurtzeko sortua da. Aukera izanez gero, pantaila handian jarri dezakegu elkarrekin irakurtzeko edota nork berea irakurri dezan eskatu. Formatua bera erakargarria suertatu ahal zaie. Halere, ondoren, neska bezala sozializaturiko gazteak futbolera jolasten ote duten, zergatik, nahiko luketen, zein baldintzatan eta zerk eragiten duen gure gustuetan hausnartzeko aukera paregabea ematen du. Bizi garen momentuan, berdintasunaren diskurtso zabalduak galdera hauek beharrezkoak ez direla pentsatzera garamatzen arren, galdetu dezakegu: Kasualitatea al da neska gutxiago aritzea futboleko? Zergatik izan daiteke hau? Goazen aztertzerara. Sakon.

Oharrak:



BOUM! (+14)

Ilustratzailea: Cixous, Mikael
 Garatzailea: Les Inéditeurs, 2015
 Apple Store (iOs) eta Google Play
 (Android)

Mikaël Cixousen ilustrazioekin, Jean-Jacques Birgéren soinuekin eta Mathias Francken laguntzaz sortutako ipuin horizontala. Hainbat sari jaso ditu, “Fiction – mention spéciale” saria, “BolognaRagazzi Digital Award” (2016) eta “Special Jury Prize du Digital Ehon Awards” (2017), besteak beste.

Eguna goiz hasi da iratzargailuaren soinuearekin. Errutinazkoa eta errepikakorra izango dela dirudi, baina fabrikara bidean (boum!) dena aldatuko da, eta han berriro: boum! boum! boum!

Ezkerretik eskuinera pasatuz irakurtzeko diseinatuak izan diren pantailek eta elkarri lotutako irudiek, narrazio lineal eta ordenatua sortzen dute, istorioa zentzugabea eta surrealista izan arren. Bertikala den pantaila bakarra sarrerakoa da, zeharkako aipamen grafiko zein zinematografikoz betea. Hori da ipuinaren zati interaktiboenetako bat, zeinetan kapela bat arin erortzen den eraikin baten goialdetik. Leiho bat ukitzen duen bakoitzean (erabiltzaileak tabletarekin edo telefono mugikorrarekin egiten dituen mugimenduen emaitza), leiho hori beste zerbait bihurtuko da.

Esan liteke, ipuinak berak moteltasuna eta kontenplazioa saritzen dituela. Irudiek ez ezik, soinu bandak ere aurrera egin edo gelditzearen arteko tentsioa elikatzen du; izan ere, pantaila bakoitzak esperientzia oso bat eskaintzen du.

Bitartekariaren esku-hartze proposamena: “Boum!”ek istorio batean murgiltzeko era berri bat aurkezten digu. Gazte irakurleen hezkuntza literario, musikal zein grafiko aberasteko egokia izan daiteke, baita irakurlearen funtzioaz hausnartzeko ere. Hitzik ezak, sekuentziak, ilustrazioek, musikalitateak eta istorio honen elementu guztiek denboraz kanpoko esperientzia bat eskaintzen digute. Irakurle bakoitzak askatasunez egingo ditu bere interpretazioak, norberak bere erritmora.

Oharrak:

